



■ KONTRAKANTXA

Bihartik hasita, jardunaldiak

Hernaniko Gazte Mugimenduen Jardunaldiak antolatu dituzte Kontrakantxa Gaztetxean, bihartik larunbatera bitartean. Bihar 11:00etan hasiko dira, gosariarekin. ■

■ UDALA

Alokairurako, diru-laguntzak

Diru-laguntza deialdia ireki berri du Udalak hirugarrenez, etxebizitzaren alokairua sustatzeko. Laguntzak urtarilaren 8ra arte eskatu daitezke, 2017ko irailetik 2018ko abuztura arteko alokairuetarako. Eskerak: HHZn edo www.hernani.eus. ■

■ BITERI

Berrikuntzak azaltzeko, bilera

Hainbat obra egin eta elkarrekin- tza-ko takilak jarriko dira Biterin, eta guztia azaltzeko, bilera deitu dute bihar, 19:00etan. ■

■ KALERA KALERA

Presoak gogoan, beste hiru zita

Gabonetan ere, «dispertsioaren erruz euskal preso, iheslari eta deportatuak etxetik urrun» dau- dela gogoratu eta etxeratzeko eskatzeko, beste hiru zita jarri ditu Kalera Kalerak: larunbatean Iruñean manifestazioa egingo da 18:30etan; eta igandean, Hernanin, Zinkoeneatik 11:00etan aterata Martuteneko espetxera martxa egingo da batetik, eta Basauriko espetxean kontzentra- zioa 12:00etan, bestetik. ■

■ BERTSOLATA

Bertso jaialdia, larunbatean

Bertsolata martxan jarri du aur- ten ere Hernaniko Bertso Esko- lak, eta jaialdi haundia antola- tu dute larunbaterako: Eli Pa- gola, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Unai Agirre eta Agin Laburu ariko dira bertsotan Biterin, 18:30e- tan hasita. Sarrerak saioa hasi baino ordu erdi lehenago jarri- ko dira salgai. ■

■ GABONAK



Musika Eskolako Dakapo abesbatza ere kalean kantuan aritu zen.



Eskeletatik ere Gabon doinuak abestera ateraziren. Argazkian, Langile.

Kantu, txalo eta muxu, oparirik goxoenak

Gabon doinuak kantatzen egin zieten ongietorria hernaniarrek Olentzero eta Maridomingiri. Arratsaldean azaldu ziren, Kottonio astoak lagunduta, gaueko lanari ekin aurretik.

IZARRIK argitsuena zeruan dir-dirka agertu zen Gabon egunean; eguzkiak ere ongie- torria egin nahi izan zien Olentzero, Maridomingi eta Kottoniori.

Galtzak bete lan izan zituzten gau osoan zehar, Hernaniko eta Urumea bailara osoko etxeetara iritsi eta opa- riak banatzeko. Baina aurretik indarrak biltzeko aukera izan zuten, batetik, hernaniarrek kantatuko Gabon doinuei es- ker, eta bestetik, jasotako txalo eta muxuen bidez. Deskantsa- zeko momentua iritsi da! ■



Txupete eta eskutitzak jaso zituen Olentzerok...



...eta opariak banatu, bueltan, Maridomingirekin!

■ NEGUKO OPORRAK

Ludoteka, zinea, antzerkia eta abar, oporretan

Neguko oporraldi hau entretenituta pasatzeko, gaurtik ostiralera ludoteka izango da kiroldegian. Bestalde, Gaztelekuan desioen pareta osatuko dute gaur. Datozen egunetan, ekintza gehiago.

ESKAINTZA bateratua egin du Udalak opor hauetarako. Gaur hasita, denetik izango da.

Kiroldegian eta Gaztelekuan, hasteko
Gaur bertan, ludoteka jarriko

da martxan kiroldegian, eta ostiralera arte izango da, 10:00etatik 13:00etara.

Bestalde, gaur 17:00etan Gaztelekuan urte berrirako de- sioekin pareta osatzeko zita ja- rri dute. Bihar ordu berean,

berriz, *Hi selfie!* ginkana egingo da. Ostegunean bestalde, su- kaldaritza tailerra izango da 11:00etan, eta ostiralean, 17:00etan, urte bukaerako fes- ta. Datorren astean, eskala- darekin hasiko dute urtea, 3an.

Zinea, antzerkia eta gehiago
Biterin ere izango da zerekin gozatu: bihar 17:00etan, *Igela- ren Erresuma* filma, eta os- tegunean *Golazen* (bukatu dira sarrerak). Datorren astean ere izango da ekitaldi gehiago. ■

ezkati

ileapaindegia

Urreaga, 4
Hernani
943 55 65 56
Hartu ordue

gse
Asesoreak

Aholkularitza eta tramitazio zerbitzua

Gudarien plaza, 13
Telfnoa: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
gse@gseasesores.net

CATALANA OCCIDENTE

Aseguruak

Atzeta 30 -
20120 Hernani
Telf - 943-332440
Fax - 943-556602

-Bautista-Blurrarena Etxegolen

kronikalari
BAT

€uro
BAT

AZAROAREN 18tik ABENDUAREN 27ra



TAXIAK: 943 550093 | **UDALTAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103
✚ / **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** / **Gauetz:** **Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087**

■ LITERATURA IÑIGO LEGORBURU

Legobururen ipuin saritua, Doberak zozketatuko duen liburuan

‘Areago. Istorioak belarrietara kontakizunak 2’ ipuin lehiaketan bigarren saria lortu du Iñigo Legorburuk. Antolatzaileek liburua osatu dute ipuinekin, eta hiru ale zozketatuko dituzte Doberak eta Kronikak.

BESTE sari bat lortu berri du Iñigo Legorburuk. Oraingoan, bigarren saria irabazi du, *Areago. Istorioak belarrietara kontakizunak 2* ipuin lehiaketan, *Ezberdintasunean, berdintsu* lanarekin.

Ipuin hori eta beste hainbat bildu dituzte liburu batean, eta liburuaren hiru ale zozketatuko dituzte Doberak eta Kronikak, bazkideen eta irakurleen artean.

Mitologia eta umeentzako ipuinak, uztartzen

Lehiaketaren helburua da, mitologia eta umeentzako ipuinak uztartzea.

Legorburuk, *Ezberdintasunean, berdintsu* lanean «aniztasunaren aldeko aldarri sendoa» egiten du. «Izaki eta landareak izena nola galtzen ari diren ikusten ari gara. Orain dena da orokorra, izan txoria, lorea edo harria. Harriak, adibidez, Dolmenak, Kromletxak, Jentil baratzak eta abar, ez dira harri soilak. Eta berdin beste guztiarekin», azaldu du.



Agirresarobe eta Legoburu, ipuin sarituen bilduma eskuan.

Aurreneko saritua, berriz, Eztizen Agirresarobe izan da, *Amonaren urrezko orrazia* lanarekin. Ipuin horiekin biek, eta beste idazle eta ilustratzaile batzuen lanekin, liburu bat argitaratu dute antolatzaileek.

Dobera-Kronikako bazkide eta irakurleentzat, zozketa

Hain zuzen, liburu horren hiru ale oparitu dizkio Iñigo Legor-

buruk Dobera Euskara Elkarteari, elkarteko bazkideen eta Kronikako irakurleen artean zozketatzeko.

Bat, bazkideen artean zozketatuko da; eta beste biak, albiste honi www.kronika.eus webgunean iruzkina egiten dioten eta Kronikara etorritako izena ematen dutenen artean. Zozketak ostiralean, abenduaren 29an egingo dira. ■



Osiñagako XXVI. Mus Txapelketako aurreneko 4 bikoteak.

■ OSIÑAGA AUZOA

Sari potoloekin etxera, osiñagatarrak

Pasa den asteburur jakatu zen Osiñagako XXVI. Mus Txapelketa, eta sari potoloekin joan ziren etxera aurreneko lau bikote sailkatuak: Angel Pikabea eta Pepe Kaloka, txapela eta txerrikumearekin; Jose Luis Toledotxiki eta Iñigo Izeta, trofeo eta uradaiazpikoekin; Simon Goikoetxea eta Bizente Arnaiz, arkumea eta sagardoarekin; eta Jabier Oskoz eta Pello Erroizenea, txuleta eta sagardoarekin. Bestalde, Gabonetako saskia Ibai Ondo etxeko Jabier Mugikak jaso du. ■



Ibai Ondo etxekoak, saskiarekin.

☞ JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

Zerk molestatzon dizu/dizue? Hitz egin dezagun

Azken hilabeteotan, Hernaniko Gure Esku Dagok hainbat jarduera antolatu ditu, Kataluniako herritarrei elkartasuna adierazteko. Azkeneko egin duguna txoko bat antolatzea izan da, herrian barrena jarri izan ditugun panel guztiak toki bakar batean erakusteko.

Horretarako aukeratu dugun txokoa Karreroko parke txikia izan da, Juan de Urbietakalean dagoena. Eta zer? Eta, nonbait, berriz ere, baten bati eragozpena sortzen dio horrek ere.

Zer da molestatzon dizuna/dizuen?

Katalanei elkartasuna adierazteko eta Erabakitze Eskubidea defendatzeko herrian jartzen diren horma-irudiak hondatzen eta puskatzen ibiltzen denarentzat edo direnentzat da galdera hau.

Eraso horietako bakoitze-

an, katalanen sinboloak suntsitzen saiatzen zarete, eta gertatzen ari den hori jakinaz nahi diegu hernaniarrei, bakoitzak bere ondorioak atera ditzan.

Katalunian, erabakitze eskubidearen alde ari direnei elkartasuna adierazten jarraituko dugu. Erasotzen duzun kartel bakoitzeko, beste bat jarriko dugu; eta ez diogu hori erronka grinak hartu gaituelako, irmotasuna erakutsi nahi dugulako baizik.

Gure Esku Dagorekin konpromisoa hartuta dugun pertsonak ezagunak gara. Nahi duzuenean, gerturatu gugana eta kafe baten bueltan, hitz aspertu bat egingo dugu lasai, elkarri entzun, iritzi guztiak errespetu osoz eman eta adostasunak bilatzeko.

Jesus Uzkudun
Illarramendi
eta Juan Batti Izagirre

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



PEDRO OLALDE
TEJEDOR 'PEDRIN'

Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte baizik.

LAGUNAK

Hernanin, 2017ko abenduaren 26an

IRAGARKI MERKEAK

Zerbitzaria behar da tabernan lan egiteko. Deitu: 943 55 75 09

Taberna alokagai, erosteko aukerarekin. Karmelo labaka kalean, Hibai taberna. Deitu: 943 21 78 56

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
DIRUZ LAGUNDUA